

UHARTE ARAKILgo UDAL PLAN OROKORRA AURRERAPENA

Uharte Arakilgo Udal Plan Orokorra egiteko adjudikazioa 2017 urtean aurrera atera zen. Talde pluridiziplinar baten buru egiten dugun arkitekto erredaktoreak gara. Esandako UPO izango da gaur egun 1991. urtetik indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatuko duen dokumentua.

UPO da ,modu orokor eta integratu batean, hirigintza antolaketa kudeatuko duen oinarritzko tresna.

Prozesu honetan bi dokumentu izango dira bat bestearen ondotik egin eta onartuko direnak: Lurralde Antolaketaren Estrategia Eredua (LAEE) eta Udal Plan Orokorra (UPO).

Udal Plan Orokorra egin aurretik, LAEEren erredakzioa aurrera eramango da. Herriaren hazkunde ereduarentzako, dokumentu honen bidez, helburu eta aukera desberdinak hautatuko dira; halaber lehentasunak, errekurtsoen ustiapena, ahulezien gainditze maila eta ingurumena eta baliabide ekonomikoen jasangarritasuna aztertuko ditu.

Nafar Gobernuako Hirigintza arloan arduradun den Departamentuarekin LAEE adosten denean UPO egin eta tramitatuko da. Aurreko LAEEK proposatutako eredia zehaztasunez garatuko duen tresna Udal Plan Orokorra (UPO) izango da eta, modu zehatz batean, lurralde antolaketaren xehetasunak ezarriko ditu.

Hona hemen UPO aurrera eraman ahal izateko pasa behar diren faseak:

1. Informazioa- Diagnostika - Aurrerapena
2. Aurreitiko bertsioa LAEE
3. LAEE onartzeko dokumentua eta NGarekin aurre-ituna
4. UPOren oinarritzko proiektua
5. UPO: hasierako onarpena
6. UPO: behin behineko onarpena
7. UPO: behin betiko onarpena

Informazio kartografikoa lortu eta gaur egungo hirigintza egoera aztertu ondoren, Aurrerapena izango den dokumentua egin da, hain zuzen ere txosten honekin batera aurkezten dena. Herriaren informazioa, hiriguneko, diagnosiarena eta hautabide proposamenen Aurrerapena osatzen dituzten planoak daude.

UPO lantzen den bitartean prozesu parte-hartzaile batek bideratuko du harren eraikidura eta, behar diren onarpenak hartu baino lehen , ahal den neurrian herritarren ekarpenak kontutan izango dira. Uharte Arakilgo Udalak 2017-11-23n Parte-hartze Plana onartu zuen. Horren barruan eta hirigintza arloko alderdi desberdinen informazioa herritarrek eman dezaten, ekintza konkretu moduan, inkesta bat prestatu da; inkestan aztertuko diren gaiak etxebizitza , paisaia, mugikortasuna edo ekipamenduak.

LAEEren aurrerapena egin eta alternatiba egokiena erabaki baino lehen denbora bat emango da herritarrek edota interesa dutenek euren iradokizunak egin ditzaten. Horretarako eskainitako dokumentazioa erabiltzeko aukera izango dute.

Proposamen eta hautabideen Aurrerapena 2015. urtean Udalak egindako Prozesu parte-hartzailearen ondorioetan oinarritu da. Hona hemen laburbilduta UPOrekin zerikusia dutenak:

- Auzoak hirigunearekin gaizki lotuak eta espaloirik gabe (Itxesi eta Zerradoara doan ibilbidea). Ibilgailuen trafikoari dagokionez zenbait leku oso arriskutsuak (autobiaen sarrera eta irteera).
- Herriaren nortasuna mantentzeko bermatuko duen neurritzko hazkundera eskatzen da. Aukera nabarmenak: "Larrubita", Zerradoa eta hirigunea lotzen dituzten zonaldeak, dentsitate ertaina erabiliz.
- Hutsik edo gaizki dauden etxebizitzak birgaikuntza bultzatu.
- Epe motz edo ertainean, lurzoru gehiago birkalifikatu gabe, dauden industri gunek finkatu.

- Nola ondare historiko eta arkitektonikoa hala ingurune naturala bultzatu.

Ondorengo antolamendu proposamenetan zenbait herriko zonalde berrikusi egin dira, hain zuzen ere Arau Subsidiarioetan egin gabe edo bukatu gabe daudenak. Hiru hautabide bizitegi-garapenerako aurkezten dira

Garapena edota hiri-trama osatu beharrean dauden hiri-zonaldeak hauek dira:

- " Larrubita" zonaldea, San Miguel kalea eta errekaen artean dagoena. Eskuragarritasun arazoekin. Kale estuek eta eginda dauden eraikuntzek ezartzen dituzten oztipoak dira nagusi.
- Hirigune eta Zerradoa bitarteko zonaldea,zerrategiaren kokapeneraino. Etxebizitzak proposatzen dira industria-nabe zaharrak ordezkatzuz. Horrela industri poligonoan industri aktibitate guztia pilatuko litzateke.
- Larranondoa zonaldea, errekaen muga naturala kontutan hartuz eta bukaera bat emateko asmoarekin. Zonalde hau hirigunearekin oso gaizki lotua dago, baina zenbait guneko publiko eta hiritar lurzorua trama osatu beharrean dagoela aurreikusi da. Autobiaren sarrera eta irteerak nola dauden dagokion Nafar Gobernu Departamentuari jakinarazi beharko zaizkio, hobetzeko behar diren neurriak har ditzan.

Hona hemen etxebizitzaren aurreikuspenetarako kontutan hartu diren aukerak. Kasu bakoitzean egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu beharko dira.

- Larrubita
- Ospitalalde
- Errekabitate

Ez dira beste aukerak ikusi, lurzorua baldintzak kontutan hartuta: kasu batzuetan Arakil ibaiak gainezka egiteko arriskua dagoelako;beste batzuetan, Iriburu zonaldean bezala, etxebizitzaren lurzorua erabilera eta industria erabileraren gutxienezko distantzia mantendu behar delako.

Industria erabilerari dagokionez, gaur egun hirigintza planean aurreikusia dagoen lurzorua nahikoa dela esan daiteke eta, denbora labur edo ertain batean, ez da inolako zabalkuntzaren beharrik ikusten.

Uharte-Arakilean, 2018ko apirila

TALDE EGILEA:

A. ALEGRÍA - J.J. EQUIZA - IDOIA LEGARRETA – Arquitectos